

ARNAS BIDEAREN IREKIERA

Gorputz arrotz batek (hala nola haragi zati bat, goxoki bat, ...) arnas bidea ixten duenean arnasketa bidean buxadura dagoela esaten da.

Buxadura motak:

ARINA: Gaixoak ez tul egin dezake edo hitz egin ere bai, buxadura ez baita erabatekoa.

LARRIA: Gaixoak airerik ezin du sartu arnas bidetik eta buxadura erabatekoa da.

Buxadura erabatekoa denean eta gaixoari inolako aire izpirik sartzen ez zaionean, denboraren poderioz konortea galduko du eta buxadurarekin jarraituz gero arnasketa geldialdi bat izan dezake eta ondoren arnas-bihotz geldialdia.

Arnas bidearen buxaduraren ondorioak oso larriak izan daitezke, garuna 3-4 minutuz oxigeno ekarpenik jaso gabe geldituz gero, lesio itzulezinak jasan ditzakeelako dagozkion ondorio organikoek gain (garun-paralisia, koma, ...).


Zer egin


Arnas bidearen barruan gorputz arrotz bat dagoenean irekitze teknika berezietara jo behar da. Irekitze teknika hauek aurki ditzakegu:

Buxadura partziala duen pertsonari (eta egin badezake) **eztul egiten lagundu**.

Pertsonak **ezin** badu **eztul** egin baina **konortea badu**:

- bizkarrean 5 talka
- sabeleko 5 konpresio (Heimlich)
- 5 talkak 5 konpresioekin txandakatzen jarraitu, egoera konpondu arte edo pertsonak konortea galdu arte.





Pertsonak **konortea galdu** badu:


- BIHOTZ-BIRIKEN SUSPERTZE MUGIMENDUAK (aurrerago azalduko da)

Sabeleko konpresioak edo Heimlich mugimendua

KONORTEA duten gaixoetan bakarrik burutu behar da


Sabeleko konpresioen edo Heimlich mugimenduaren helburua, diafragmaren desplazamendu bat sortzea da, birikak uzkuertzeko eta airearen irteera sendo bat sortzeko, gorputz arrotza kanpora bultzatuz eta kanporatu araziz, onenean, edo, gutxienez, kanpora hurbilduaz.

Gaixoaren atzean jarri eta bere gerria besoekin inguratu, zure gorputza aurrerantz okertzen duzun bitartean. Sabelean presioa egin, erdi aldean, zilbor eta bularrezurraren muturraren arteko erdiko puntuan. Konpresioak esku baten ukabilarekin egingo dira, hatz lodia sabelaren kontra jarriaz eta beste eskuarekin ukabila helduaz. Konpresioek zakarrak izan beharko dute, gorantz eta atzerantz zuzenduak. Helburua ez da biktimari besarkada indartsuak ematea, sabelean ukabila hondoratzea baizik.



Biktima zure besoekin ezin baduzu inguratu mugimendua ondo egin ahal izateko, biktimari lurrean etzateko eskatu, buruz gora. Gainean eseri, pelbisaren parean, eta zure bi eskuak jarri, bata bestearen gainean, aurretik esandako puntu berean. Hau da, sabelaren erdi aldean, zilborra eta bularrezurraren arteko erdiko puntuan. Kasu honetan sabelean egin behar den presioa, azpian gelditu den esku-ahurrarekin egin behar da.

Uneoro besoak luzatuta edukiko dira, gorputz osoarekin indarra egiten dugun bitartean (horrek soroslea nekatzea ekidingo du).



Mugimendua errepikatu egin behar da gorputz arrotza arnas bideetatik irtetea lortzen dugun arte. Hipoxiarekin (oxigeno gabezia) arnas-hodia erlaxatzen da eta barruko argia handitu egiten da.

GARRANTZITSUA

Hiru salbuespen daude mugimendu hau egiterako orduan:

- **Haurdun dauden emakumeak**, uteroa zanpatu baitaiteke
- **Oso gizen dauden pertsonak**, mugimendua ez baita ondo egiten
- **Haur edoskitzaileak**, sabelean lesioak erraz egiten baitira

* Egoera hauetan bularraldeko konpresioak egingo dira